PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0160 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Programa: 600 - Berdintasuna
Funtzionala: 327 - Herritarren bizikidetza sustatzea

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bizitzako esparru guztietan emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko lan egiten du. Alde batetik, foru politika guztietan genero ikuspegia txertatzea bultzatuz, eta bestetik, lurraldean tokiko berdintasunerako politikak sustatuz, talde feministen eta emakume taldeen lana indartuz, eta gizartean berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa eta aldaketa soziala bultzatuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoan, emakumeen jarduera-tasa % 51,0koa da, eta gizonena, berriz, % 60,2koa; beraz, 9,2 ehuneko-puntuko aldea dago (INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2026ko bigarren hiruhilekoa). Lanaldi motari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lanaldi partzialean diharduten pertsonen % 74,2 inguru emakumeak dira, eta % 25,8 gizonak (Eustat, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta, 2026ko bigarren hiruhilekoa; argitaratutako datuetatik abiatuta kalkulatutako ehunekoak).
Desberdintasunak agerian geratzen dira, halaber, etxeko lanen eta zaintza-arduren banaketan, baita lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko baldintzetan ere. Eustaten arabera, 2023an emakume landunek egunean 3 ordu ematen zituzten etxeko lanetan, eta gizonek, berriz, 2 ordu eta minutu bat. Bestalde, Eustaten 2023ko Etxeko Lanaren Kontu Satelitearen arabera, Gipuzkoan ordaindu gabeko etxeko lanaren balio ekonomikoaren % 64,5 emakumeek sortzen zuten, eta % 35,5 gizonek.
Desberdintasun horiek ondorio ekonomikoak dituzte, eta soldaten eta errenten arteko aldeetan islatzen dira. Hala, Gipuzkoan soldata-arrakala % 22,4 ingurukoa da; izan ere, gizonen batez besteko soldata 33.871 eurokoa da, eta emakumeena, berriz, 26.292 eurokoa (Ogasun eta Finantza Departamentua, 2026. urtea).
Gipuzkoako lurralde-eremuan, Eustaten Errenta Pertsonalaren eta Familiarraren Estatistikaren 2024ko azken datuek erakusten dute emakumeen lanetik eratorritako batez besteko errenta 13.346 eurokoa izan zela, eta gizonena, berriz, 20.335 eurokoa. Bestalde, emakumeen batez besteko errenta pertsonal osoa 24.158 eurokoa izan zen, eta gizonena, berriz, 35.324 eurokoa. Horrek esan nahi du urtean 11.166 euroko aldea dagoela gizonen alde, hau da, gizonen errentaren % 31,6.
Datuek agerian uzten dute lanaren sexu-banaketarekin, zaintza-arduren banaketa desorekatuarekin eta lan-merkatuan parte hartzeko eta ordainsariak jasotzeko dauden aldeekin lotutako egiturazko desberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela. Desberdintasun horiek emakumeentzako baldintza ekonomiko eta sozial kaltegarriak sortzen laguntzen dute, eta pobrezia edo mendekotasun ekonomikoa bezalako fenomenoen aurrean duten zaurgarritasuna areagotzen dute. Era berean, genero-desberdintasuna iraunarazten duten beste egiturazko faktore batzuekin lotuta daude. Adierazle batzuek aurrerapenak erakusten dituzten arren, arrakalek nabarmenak izaten jarraitzen dute. Horregatik, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak helburu espezifiko bat ezartzen du, Garapen Jasangarrirako 5. Helburua, genero-berdintasuna lortzeko eta emakume eta neska guztiak ahalduntzeko. Horrez gain, genero-berdintasuna zeharkako dimentsio gisa txertatzen du gainerako helburu guztietan.

Beharraren deskribapen xehatua:

- Lan esparruan emakumeen independentzia ekonomikoa eta berdintasuna sustatzeko beharra.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren detekzioa, prebentzioa eta arreta hobetzeko beharra.
- Zaintzen gizarte-erantzunkidetasuna eta gizonek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan duten erantzunkidetasuna sustatzeko beharra.

Nori zuzendua:

GFA, Tokiko administrazioak eta elkarteak eta talde feministak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileria - kanpoko asistentzia teknikoa - aurrekontua.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

1. Planen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa.
2. Lan-eremuak martxan jarri eta koordinatu.
3. Gaikuntza-prozesuak diseinatzea.
4. Gidak, orientabideak eta jarraibideak egitea.
5. Bestelakoak: diru-laguntzak kudeatzea, txostenak egitea, bilerak antolatze, erakunde arteko egituretan parte hartzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Planak, aholkularitza eta egiaztatze txostenak, prestakuntza, diru-laguntzak, jarraibideak, sentsibilizazio ekimenak, gidak, jarraipen txostenak.

Programaren arau esparrua:

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 2/2015 Foru Araua.
EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII plana.
Gipuzkoan Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Berdintasun politikak garatzeko egitura egonkorrak dituzten udalerrien kopurua	Kopurua	>=	33,00	33,00	38,00	38,00
Gunean (elkarte-mugimendu feministaren eta GFAren arteko partaidetzarako eta elkarrizketarako espazioa) erregularki parte hartzen duten emakume-elkarteen kopurua	Kopurua	>=	30,00	30,00	33,00	33,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Udalen baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, berdintasunerako tokiko politika modu koherente, orekatu eta integratuan garatzeko lurralde mailan.



% 90,46



% 8,33



% 1,21

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**636.434,60**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.1 Ekintza Berdintasunerako tokiko politikak laguntzea diru laguntza lerroen bitartez.	265.002,41			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Tokiko berdintasunerako politikak sustatzea	280.144,41			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu	7.714,63			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Kalitatezko estandarrak berdintasunerako tokiko politiketan (IV. Plana)	83.573,15			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:
Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa indartzea, eta Foru Aldundiaren eta haien arteko lankidetza eta elkarrizketa indartzea.



% 55,02



% 44,98

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**857.081,71**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte mugimenduaren jarduerak laguntzea.	607.017,04			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza GUNEA berdintasunerako solaskidetza-gunea dinamizatzea	116.920,78			2027/01/01	2027/12/31	
2.3 Ekintza Entitateekin hitzarmenak: Donostiako Emakumeen Etxea, Bidez Bide, Alardezaleak	117.714,63			2027/01/01	2027/12/31	
2.4 Ekintza Trakzio proiektua: Hurbiltasunetik zaintzea: zaintzen kooperatibak bultzatzea (IV. Plana)	15.429,26			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:
Gizarte mailan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**203.378,41**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak	144.643,89			2027/01/01	2027/12/31	
3.2 Ekintza Berdintasunaren arloko diagnostikoak eta azterlanak egitea	47.019,89			2027/01/01	2027/12/31	
3.3 Ekintza Sentsibilizazioaren alorreko hitzarmenak: Aspegi, Gladys saria	11.714,63			2027/01/01	2027/12/31	

4. Ekintza lerroa:
Lurraldean emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, indarkeria mota guztiak kontuan hartuta eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgaitasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik.



% 96,30



% 3,70

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**168.696,93**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
4.1 Ekintza Emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politika bultzatzea eta haren jarraipena egitea	122.053,04			2027/01/01	2027/12/31	
4.2 Ekintza Indarkeria matxistaren prebentzioaren arloko hitzarmenak (Beldur barik programa)	31.214,63			2027/01/01	2027/12/31	
4.3 Ekintza Emakumeen ahalduntzea Aldundiak indarkeria matxistari egiten dion arretaren bidez (IV. Plana)	15.429,26			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen	Ehunekoa	>=	1,30	1,30	1,50	1,50

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
berdintasunerako foru-politika bultzatzeko duen kudeaketarako aurrekontu propioaren ehunekoa						
Gutxienez 20 orduk berdintasuneko oinarrizko prestakuntza jaso duten enplegatu publikoen ehunekoa, enplegatu publiko guztiekiko	Ehunekoa	>=	8,59	8,59	9,22	9,22
Berdintasunerako Organoko eta Berdintasunerako Departamentuetako Unitateetako teknikarien artean, administrazio publiko edo unibertsitate batek emandako 300 ordutik gorako prestakuntza espezializatua dutenen ehunekoa	Ehunekoa	>=	41,60	41,60	62,40	62,40

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.



% 95,45



% 2,63



% 1,92

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**733.550,35**	**40.016,00**		**2027/01/01**	**2028/12/31**	
1.1 Ekintza Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren jarraipena eta ebaluazioa	101.717,04			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza 2025-2027 aldirako Berdintasunerako IV. Foru Planaren ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa	156.400,04	15.780,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.3 Ekintza Erakundeen arteko lana EAEko berdintasun politikak hobetzeko.	42.743,89			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Erakundeen arteko lana estatu eta/edo nazioarte mailan berdintasuna sustatzeko.	31.543,89			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Berdintasunean eragin positiboa izango duen foru aurrekontua (IV. Plana)	130.658,54	15.917,00		2027/01/01	2028/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.6 Ekintza Berdintasunerako foru politika ezartzeko kalitate estandarrak (IV. Plana)	61.287,78			2027/01/01	2027/12/31	
1.7 Ekintza Araudian genero-ikuspegia txertatzeko prozedura hobetzeko estrategia	170.626,02	8.319,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.8 Ekintza Sailetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateak koordinatzeko gunea	23.143,89			2027/01/01	2028/12/31	
1.9 Ekintza Trakzio proiektua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokia (IV Plan)	15.429,26			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Berdintasunerako organoak zeharkako izaera du. Bere jarduera esparru esklusiboa da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan foru politikak bultzatzea. Organoari dagokio: berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, udal mailan berdintasunerako politikak sustatzeko neurriak ezartzea, Lurraldean sare eta praktika feministak indartzeko baldintzak sortzen laguntzea, indarkeria matxistaren aurkako foru politikak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, herritarrak sentsibilizatzea eta gainerako euskal herri administrazioekin solaskidetza eta koordinazioa bermatzea berdintasunaren arloan.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, euskarazko administrazio atalaren aitorpena du. Eta horrek, euskara, laneko zein harremanetarako hizkuntza nagusia bihurtzen du gurean. Baita, herritarren harreran, laneko prestakuntza eta sustapenean, kontratazio administratiboan eta aplikazio informatikoetan.

Kategoria	Nola
8.- Herritarrekiko harremanak	**Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan hizkuntza-klausula berrituak txertatu**

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Beren izaera edo funtzioak direla eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen duten entitate publiko eta pribatuekin partaidetzarako eta lankidetzarako harremanak eta bideak ezarri ahal izateko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan GUNEA deituriko solaskidetza politikorako esparru parte hartzaile bat dugu. Bertan mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin hartu-emanak ditugu, eta, era horretan, helburu bikoitza lortzen dugu: emakumeengan eragina duten foru politiken eta berdintasuna sustatzeko berariazko politiken osaketan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea; eta, emakumeen autonomía eta jabekuntza sustatzea, bizitza publikoaren, kulturalaren, ekonomikoaren eta sozialaren alderdi guztietan herritartasun aktiboaren jardunbideak indartuz.

Kuantifikazioa:	1.397.054,59	(% 52,94)
Ordainketa kredituak:	1.381.274,59	(% 53,14)
Datozen urteetako gastuak:	15.780,00	(% 39,43)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	**(% 100,00)**	**7. Bestelako partaidetza prozesuak**

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honek harreman zuzena du GJHko 5. Helburuarekin: "Genero Berdintasuna", helburu honekin izango du aurrekontuaren lotura handiena.
Horretaz gain beste hiru helburuekin harrema du Berdintasunerako aurrekontu programak:
- 16. Helburuarekin: "Bakea, justizia eta instituzio sendoak"
- 17. Helburuarekin: "Helburuak lortzeko aliantzak"
- 18. Helburuarekin: "Kultura eta hizkuntza aniztasuna"

Kuantifikazioa: 2.639.158,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
5 GENERO BERDINTASUNA	5-Genero berdintasuna Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.	**2.111.471,16**	**40.016,00**
Helburua	5.2 - Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria-modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-esplotazioa eta beste esplotazio-mota batzuk barne	219.590,47	
	Ekintza lerroak		
	Gizarte mailan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea.	57.136,46	
	Lurraldean emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, indarkeria mota guztiak kontuan hartuta eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgaitasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik.	162.454,00	
Helburua	5.4 - Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera	57.136,46	
	Ekintza lerroak		
	Gizarte mailan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea.	57.136,46	
Helburua	5.5 - Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan	571.036,58	
	Ekintza lerroak		
	Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa indartzea, eta Foru Aldundiaren eta haien arteko lankidetza eta elkarrizketa indartzea.	471.569,87	
	Gizarte mailan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea.	60.893,55	
	Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.	38.573,15	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helburua	5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	1.263.707,66	40.016,00
	Ekintza lerroak		
	Udalen baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, berdintasunerako tokiko politika modu koherente, orekatu eta integratuan garatzeko lurralde mailan.	575.719,49	
	Gizarte mailan berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa areagotzea.	28.211,93	
	Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.	659.776,24	40.016,00
	16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	**20.343,41**	
Helburua	16.07 - Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan	20.343,41	
	Ekintza lerroak		
	Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.	20.343,41	
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**459.612,80**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	459.612,80	
	Ekintza lerroak		
	Udalen baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, berdintasunerako tokiko politika modu koherente, orekatu eta integratuan garatzeko lurralde mailan.	53.000,48	
	Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa indartzea, eta Foru Aldundiaren eta haien arteko lankidetza eta elkarrizketa indartzea.	385.511,84	
	Lurraldean emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, indarkeria mota guztiak kontuan hartuta eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgaitasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik.	6.242,93	
	Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.	14.857,56	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**7.714,63**	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	7.714,63	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Ekintza lerroak		
Udalen baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, berdintasunerako tokiko politika modu koherente, orekatu eta integratuan garatzeko lurralde mailan.	7.714,63	
Guztira	**2.599.142,00**	**40.016,00**

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	611.542,00	771.463,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	964.179,00	964.179,00	40.016,00				40.016,00
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	863.500,00	863.500,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.439.221,00**	**2.599.142,00**	**40.016,00**				**40.016,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**2.439.221,00**	**2.599.142,00**	**40.016,00**				**40.016,00**

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	771.463,00				771.463,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	964.179,00		40.016,00		1.004.195,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	863.500,00				863.500,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.599.142,00**		**40.016,00**		**2.639.158,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**2.599.142,00**		**40.016,00**		**2.639.158,00**	